



## **1. GJH. POBREZIA DESAGERRARAZTEA**

### **Pobrezia mota guztiak desagerraraztea mundu osoan**

#### **1.1 HELMUGA Muturreko pobrezia amaitzea**

Hemendik 2030era, pertsona ororentzat eta mundu osoan muturreko pobrezia desagerraraztea (gaur egun ulertzen da pertsona bakoitzeko eguneko 1,25 dolar baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak direla muturreko pobrezian daudenak).

#### **1.2 HELMUGA Pobrezia erlatiboa murriztea bere dimentsio guztietan**

Hemendik 2030era, gutxienez erdira jaitea definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa.

#### **1.3 HELMUGA Babes sozialeko sistemak ezartzea**

Nazio mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, eta, hemendik 2030era, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen babes zabala lortzea.

#### **1.4 HELMUGA Oinarrizko zerbitzuak eta finantza-baliabideak eskuratzeko bermea**

Hemendik 2030era, bermatzea gizon eta emakume guztiek, bereziki pobreenek eta ahulenek, eskubide berberak dituztela baliabide ekonomikoak izateko eta oinarrizko zerbitzuak, lurraren eta beste ondasun batzuen jabetza eta kontrola izateko, herentziarako, natura-baliabideetarako, teknologia berri egokietarako eta finantza zerbitzuetarako, mikrofinantzaketa barne.

#### **1.5 HELMUGA Erresilientzia ingurumen-hondamenen, eta hondamen ekonomiko eta sozialen aurrean**

Hemendik 2030era, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea, eta klimarekin eta beste krisi eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoekiko esposizioa eta zaurgarritasuna murriztea.

#### **1.A HELMUGA Baliabideak mobilizatzeko bermea**

Hainbat iturritatik datozen baliabideak nabarmen mobilizatu daitezela bermatzea, baita garapenerako lankidetzeta hobetuz ere, baliabide nahikoa eta aurreikusteko modukoak emateko garapen-bidean dauden herrialdeei, batez ere aurrerapen txikienekoei, pobrezia dimentsio guztietan amaiera emateko programak eta politikak abian jarri ahal izateko.

#### **1.B HELMUGA Pobrezia desagerrarazteko arau-esparruak sortzea**

Nazioan, eskualdean eta nazioartean arau-esparru sendoak sortzea pobreen aldeko garapen-estrategietan oinarrituta, genero-kontuak aintzat hartuko dituztenak, pobrezia desagerrarazteko neurrietan inbertsio bizkorra bultzatzeko.



## **2. GJH. GOSERIK EZ**

### **Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea**

#### **2.1 HELMUGA Gosea desagerraraztea**

Hemendik 2030era, gosea desagerraraztea eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta ahultasun-egoeran dauden pertsonak, bularreko haurrak barne, urte osoan elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.

#### **2.2 HELMUGA Malnutrizioaren modu guztiak amaitzea**

Hemendik 2030era, malnutrizioaren modu guztiak amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, 5 urtetik beherako haurren hazkundearen atzerapenari eta emaziazioari buruz nazioartean adostutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bularra ematen ari diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea.

#### **2.3 HELMUGA Eskala txikiko ekoizleen nekazaritza-ustiapena eta diru-sarrerak bikoiztea**

Hemendik 2030era, nekazaritza-ustiapena eta eskala txikian elikagaien ekoizle direnen diru-sarrerak bikoiztea (bereziki emakume, herri indigena, familiako nekazari, abeltzain eta arrantzaleenak), besteak beste, lurretara sarbide segurua eta bidezkoa edukiz, bai eta beste ekoizpen-baliabide eta *-input* batzuetara eta ezagutzetara, finantza-zerbitzuetara, merkatuetara eta balio erantsia eta nekazaritzakoak ez diren enpleguak sortzeko aukeretara ere.

#### **2.4 Nekazaritzako praktika jasangarriak eta erresilienteak**

Hemendik 2030era, elikagaiak ekoizteko sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta nekazaritza-praktika erresilienteak aplikatzea produktibitatea eta ekoizpena handitzeko, ekosistemak mantentzen laguntzeko, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorteetara, uholdeetara eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzeko eta lurzoruaren eta lurraren kalitatea pixkanaka hobetzeko.

#### **2.5 HELMUGA Hazien aniztasun genetikoa mantentzea**

Hemendik 2020ra, hazien, landatutako landareen, basierretako eta etxekeo animalien eta dagozkien basa-espezieen aniztasun genetikoa mantentzea, besteak beste, kudeaketa egokiaren eta hazi- eta landare-bankuen dibertsifikazioaren bidez nazioan, eskualdean eta nazioartean, eta baliabide genetikoak eta ezagutza tradizionalak erabiltzeak eta haien banaketa bidezko eta ekitatiboak dakartzan onurak izateko aukera sustatzea, nazioartean hitzartutakoaren arabera.

#### **2.A HELMUGA Nekazaritzan inbertsioak handitzea**

Inbertsioak handitzea, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, landako azpiegiturretan, nekazaritzako ikerketan eta hedapen-zerbitzuetan, garapen teknologikoan eta landareen eta abere gene-bankuetan, nekazaritza-ekoizpenerako gaitasuna handitzeko garapen-bidean dauden herrialdeetan, batez ere aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

#### **2.B HELMUGA Munduko nekazaritzako eta abeltzaintzako merkatuen egonkortasuna**

Munduko nekazaritzako eta abeltzaintzako merkatuetan dauden merkataritza-murrizketak eta merkataritza-desorekak zuzentzea eta prebenitzea, besteak beste, nekazaritza-esportazioei diruz laguntzeko modu guztiak eta pareko ondorioak dituzten esportazio-neurri guztiak aldi berean ezabatuta, Garapenerako Dohako Errondaren aginduarekin bat.

## **2.C HELMUGA Elikagaien prezioen aldakortasuna kontrolatzea**

Elikadurarako oinarrizko produktuen eta eratorrien merkatuak ondo dabiltzala ziurtatzeko neurriak hartzea, eta merkatuei buruzko informaziorako sarbide egokia bideratzea, baita elikaduren erreserben gainean ere, elikagaien prezioen muturreko aldakortasuna mugatzen laguntzeko.



### **3. GJH. OSASUNA ETA ONGIZATEA**

#### **Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea**

##### **3.1 HELMUGA Amen heriotza-tasa murriztea**

Hemendik 2030era, munduko amen heriotza-tasa 70etik behera murriztea bizirik jaiotako 100.000 haurreko.

##### **3.2 HELMUGA Haurren heriotzak amaitzea**

Hemendik 2030era, jaioberrien eta 5 urtetik beherako umeen heriotza saihegarriak amaitzea. Horretarako, herrialde guztiek ahaleginak egin behar dituzte jaioberrien heriotza-tasa gutxienez 12ra jaisteko bizirik jaiotako 1.000 haurreko, eta 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa gutxienez 25era jaisteko bizirik jaiotako 1.000 haurreko.

##### **3.3 HELMUGA Gaixotasun kutsakorrek amaitzea**

Hemendik 2030era, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta arretarik eman ez zaien beste gaixotasun tropikal batzuk desagerraraztea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

##### **3.4 HELMUGA Gaixotasun ez kutsakorrek murriztea eta osasun mentala bultzatzea**

Hemendik 2030era, herena murriztea kutsatu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea.

##### **3.5 HELMUGA Drogen eta alkoholaren abusuak prebenitzea eta tratatzea**

Mendekotasuna sortzen duten substantzien prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.

##### **3.6 HELMUGA Zirkulazio-istripuak murriztea**

Hemendik 2020ra, erdira murriztea munduan trafiko-istripuen ondorioz eragindako heriotzen eta lesioen kopurua.

##### **Meta 3.7 Sexu- eta ugalketa-osasuneko eta familia-plangintzako zerbitzuetarako sarbidea bermatzea**

Hemendik 2030era, sexu eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbide unibertsala bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programa nazionaletan.

##### **3.8 HELMUGA Osasun-sistemaren estaldura unibertsala lortzea eta medikamentuak eskuratzea**

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala lortzea, bereziki finantza-arriskuen aurkako babesa, kalitatezko funtsezko osasun-zerbitzuetarako sarbidea eta guztiontzako medikamentu eta txerto seguruak, eraginkorrak, eskuragarriak eta kalitatezkoak izateko aukera.

##### **3.9 HELMUGA Kutsadura kimikoak eta poluzioak eragindako heriotzak murriztea**

Hemendik 2030era, nabarmen jaistea produktu kimiko arriskutsuen eta airearen, uraren eta luraren kutsaduraren ondorioz eragindako heriotzen eta gaixotasunen kopurua.

### **3.A HELMUGA Tabakoaren kontrola**

Osasunaren Mundu Erakundearen Tabakoa Kontrolatzeko Esparru Hitzarmenaren aplikazioa indartzea herrialde guztietan, dagokionaren arabera.

### **3.B HELMUGA Funtsezko txertoen eta medikamentuen I+Grako laguntza**

Batez ere garapen-bidean dauden herrialdeei eragiten dieten gaixotasun kutsakorren eta ez-kutsakorren aurkako txertoak eta medikamentuak ikertzeko eta garatzeko jarduerak bultzatzea eta funtsezko medikamentu eta txerto eskuragarrietara jotzeko bideak erraztea. Hori guztia, Merkataritzarekin eta Osasun Publikoarekin lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen alderdiei buruzko Hitzarmenaren inguruko Dohako Adierazpenarekin bat; bertan baieztatzen da garapen-bidean dauden herrialdeek eskubidea dutela Merkataritzarekin eta Osasun Publikoarekin lotutako Jabetza Intelektualeko Eskubideen alderdiei buruzko Hitzarmenean osasun publikoa babesteko eta, bereziki, guztiontzako medikamentuak eskuratzeko malgutasunari buruz adierazten diren xedapenak ahalik eta gehien erabiltzeko.

### **3.C HELMUGA Osasun-sistemaren finantzaketa handitzea**

Nabarmen areagotzea osasunaren finantziazioa eta osasun-langileen kontratazioa, hobekuntza eta gaikuntza, eta langile horiei eustea garapen-bidean dauden herrialdeetan, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan.

### **3.D HELMUGA Osasun-arriskuen kudeaketa indartzea**

Herrialde guztiek eta, batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeek alerta goiztiarrerako, arriskuak murrizteko eta nazioko eta munduko osasunerako arriskuak kudeatzeko duten gaitasuna indartzea.



## **4. GJH. KALITATEZKO HEZKUNTZA**

### **Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea**

#### **4.1 HELMUGA Lehen eta bigarren hezkuntzaren kalitatea ziurtatzea**

Hemendik 2030era, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaituko dutela ziurtatzea. Hezkuntzak doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaitza egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.

#### **4.2 HELMUGA Eskolaurreko hezkuntzarako sarbidea eta kalitatea ziurtatzea**

Hemendik 2030era, haur guztiek lehen haurtzaroan eta eskolaurreko hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prestatuak egon daitezen.

#### **4.3 HELMUGA Goi-mailako prestakuntza jasotzeko aukera-berdintasuna bermatzea**

Hemendik 2030era, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza teknikoa, profesionala eta goi-mailakoa izateko aukera-berdintasuna ziurtatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne.

#### **4.4 HELMUGA Enplegua lortzeko gaitasunak handitzea**

Hemendik 2030era, nabarmen handitzea enplegua eta lan duina lortzeko eta ekintzailtzarako beharrezko gaitasunak (batez ere gaitasun teknikoak eta profesionalak) dituzten gazteen eta helduen kopurua.

#### **4.5 HELMUGA Genero-desparekotasunak desagertzea eta kolektibo kalteberen sarbidea sustatzea**

Hemendik 2030era, genero-desparekotasunak desagerraraztea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-heziketan pertsona kalteberenei, desgaitasunen bat dutenak, herri indigenak eta ahultasun-egoeran dauden haurrak barne.

#### **4.6 HELMUGA Alfabetatzea eta aritmetikaren ezagutza ziurtatzea**

Hemendik 2030era, gazte guztiak eta helduen proportzio handi bat, bai gizonak bai emakumeak, alfabetatuta daudela eta aritmetikako oinarrizko ezagutzak dituztela ziurtatzea.

#### **4.7 HELMUGA Garapen jasangarrirako hezkuntza globala sustatzea**

Hemendik 2030era, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratuko dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako eta genero-berdintasunerako hezkuntzaren bidez, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura eta munduko herritartasuna sustatuz eta kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratuz.

#### **4.A HELMUGA Hezkuntza-instalazio inklusiboak eta seguruak hobetzea**

Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan dituzten eta ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeriarik gabeak, inklusiboak eta guztiontzako eraginkorrak eskaintzen dituzten hezkuntza-instalazioak eraikitzea eta egokitzea.

#### **4.B HELMUGA Goi-mailako irakaskuntzarako beka gehiago ematea**

Hemendik 2020ra, mundu osoan nabarmen areagotzea garapen-bidean dauden herrialdeetarako eskuragarri dagoen beken kopurua, zehazki, aurrerapen txikieneko herrialdeetarako, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietarako eta Afrikako herrialdeetarako daudenak, bertako ikasleak herrialde garatuetako edo garapen-bidean dauden beste herrialde batzuetako goi-mailako irakaskuntza-programetan matrikulatu ahal izateko, lanbide-prestakuntzako programak eta programa teknikoak, zientifikoak, ingeniarietakoak eta informazioaren eta komunikazioen teknologiari buruzko programak barne.

#### **4.C Irakasleen kualifikazioa hobetzea**

Hemendik 2030era, nabarmen areagotzea irakasle kalifikatuen eskaintza, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan, irakasleak prestatzeko.



## **5. GJH. GENERO BERTINTASUNA**

### **Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea**

#### **5.1 HELMUGA Diskriminazioa amaitzea**

Mundu guztian emakumeen eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzea.

#### **5.2 HELMUGA Genero-indarkeria mota guztiak desagerraraztea**

Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria-modu guztiak desagerraraztea eremu publikoetan eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-esplotazioa eta bestelako esplotazioak barne.

#### **5.3 HELMUGA Haurren ezkontza eta emakumeen mutilazio genitala desagerraraztea**

Praktika kaltegarri guztiak desagerraraztea, besteak beste, haurren ezkontza, goiztiarra eta behartua, eta emakumeen genitalen mutilazioa.

#### **5.4 HELMUGA Zaintza-lana eta etxeko lanak aintzatestea**

Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lanak aintzatestea eta baloratzea gizarte-babeseko zerbitzu publikoen, azpiegituren eta politiken bidez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.

#### **5.5 HELMUGA Emakumearen parte-hartze osoa eta aukera-berdintasuna bermatzea**

Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, bai eta lidergorako aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.

#### **5.6 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta ugalketa-eskubideak bermatzea**

Sexu- eta ugalketa-osasun zerbitzuetarako sarbide unibertsala ziurtatzea, bai eta ugalketa-eskubideak ere, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programarekin, Bejingeko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.

#### **5.A HELMUGA Baliabide ekonomikoak izateko eskubide-berdintasuna bermatzea**

Emakumeei baliabide ekonomikoak izateko eskubide-berdintasuna, jabetzak izateko eta lurra eta bestelako ondasunak kontrolatzeko eta finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak edukitzeko aukera emango dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritz.

#### **5.B HELMUGA Teknologiaren eta IKTen erabilera hobetzea**

Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

#### **5.C HELMUGA Berdintasunerako eta ahalduntzeko politikak eta legeak onartzea**

Politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea emakume eta neskato guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea maila guztietan sustatzeko.





## **6. GJH. UR GARBIA ETA SANEAMENDUA**

### **Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea**

#### **6.1 HELMUGA Edateko ura eskura izatea**

Hemendik 2030era, edateko ura lortzeko aukera unibertsala eta bidezkoa izan dadila lortzea, denontzako prezio egokian.

#### **6.2 HELMUGA Saneamendu- eta higiene-zerbitzuak eskuragarri izatea**

Hemendik 2030era, saneamendu- eta higiene-zerbitzu egokiak eta bidezkoak eskuragarri izatea lortzea denontzat, eta amaiera ematea aire zabalean sabelusteari. Arreta berezia eskainiko zaie emakumeen eta neskatuen beharrei, eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei.

#### **6.3 HELMUGA Uraren kalitatea hobetzea. Kutsadura eta hondakin-urak murriztea**

Hemendik 2030era, uraren kalitatea hobetzea, eta, horretarako, kutsadura murriztea, hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea, tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea eta arriskurik gabeko birziklapena eta berrerabilera nabarmen areagotzea mundu osoan.

#### **6.4 HELMUGA Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra handitzea (ur geza ateratzea)**

Hemendik 2030era, baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra nabarmen handitzea sektore guztietan, eta ur gezaren erauzketaren eta horniduraren jasangarritasuna bermatzea, ur-eskasiari aurre egiteko eta urik ez duten pertsonen kopurua nabarmen murrizteko.

#### **6.5 HELMUGA Baliabide hidrikoen kudeaketa integrala ezartzea**

Hemendik 2030era, baliabide hidrikoen kudeaketa integratua ezartzea maila guztietan, baita mugaz gaindiko lankidetzaren bidez ere, hala badagokio.

#### **6.6 HELMUGA Urarekin lotutako ekosistemak babestea**

Hemendik 2020ra, urarekin lotura duten ekosistemak babestea eta berrezartzea, basoak, mendiak, hezeguneak, ibaiak, akuiferoak eta lakuak barne.

#### **6.A HELMUGA Kudeaketa-gaitasunen sorrera sustatzea**

Hemendik 2030era, nazioarteko lankidetzaz eta garapen-bidean dauden herrialdeei emandako laguntza handitzea, uraren eta saneamenduaren arloko jardueretan eta programetan gaitasuna sortzeko, hala nola honako hauetarako: ura biltzeko, gatzgabetzeko, baliabide hidrikoak eraginkortasunez erabiltzeko, hondakin-urak tratatzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko teknologiak erabiltzeko.

#### **6.B HELMUGA Tokiko komunitateen parte-hartzea bultzatzea**

Tokiko komunitateek uraren eta saneamenduaren kudeaketaren hobekuntzan duten parte-hartzea bultzatzea eta indartzea.



## **7. GJH ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA**

### **Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat**

#### **7.1 HELMUGA Energiarako sarbide unibertsala bermatzea**

Hemendik 2030era, energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzea.

#### **7.2 HELMUGA Energia berriztagarriak areagotzea**

Hemendik 2030era, energia berriztagarriaren proportzioa nabarmen handitzea energia-iturri guztietan.

#### **7.3 HELMUGA Energia-eraginkortasunaren tasa bikoiztea**

Hemendik 2030era, energia-eraginkortasuna hobetzeko munduko tasa bikoiztea.

#### **7.A HELMUGA Energia garbiekin lotutako ikerketa eta inbertsioa handitzea**

Hemendik 2030era, nazioarteko lankidetzaz handitzea, energia garbiarekin lotutako ikerketan eta teknologian sarbidea ahalbidetzeko, barne hartuta iturri berriztagarriak, energia-eraginkortasuna eta erregai fosilen teknologia aurreratuak eta gutxien kutsatzen dutenak, eta energia-azpiegituretan eta teknologia garbietan inbertitu dadin sustatzea.

#### **7.B HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeetan azpiegiturek eta teknologia areagotzea**

Hemendik 2030era, denentzat energia-zerbitzu modernoak eta jasagarriak emateko azpiegiturek areagotzea eta teknologia hobetzea garapen-bidean dauden herrialde guztietan, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeetan, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan eta garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeetan, betiere beren laguntza-programekin bat etorritik.



## **8. GJH. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA**

**Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina sustatzea**

### **8.1 HELMUGA Hazkunde ekonomikoari eustea**

Bere horretan eustea per capita hazkunde ekonomikoari, inguruabar nazionalen arabera, eta, bereziki, barne-produktu gordina urtean gutxienez % 7 haz dadila bermatzea aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

### **8.2 HELMUGA Produktibitatea handitzea dibertsifikazioaren, teknologiararen eta berrikuntzaren bidez**

Produktibitate ekonomiko handiagoa lortzea dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez, besteak beste, balio erantsi handia duten eta eskulan asko erabiltzen duten sektoreei arreta eskainiz.

### **8.3 HELMUGA Enpresa txikiak eta ertainak sustatzea**

Garapenera bideratutako politikak sustatzea ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza bultzatzeko; eta mikroenpresen eta enpresa txikien eta ertainen eraketa eta hazkundera sustatzea, baita finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.

### **8.4 HELMUGA Ekoizpena eta kontsumo eraginkorra eta errespetuzkoa hobetzea**

Hemendik 2030era, pixkanaka hobetzea munduko baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorrak, eta hazkunde ekonomiko eta ingurumenaren degradazioa bereizten saiatzea, Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarriei buruzko Programen Hamar Urterako Esparruarekin bat etorritik, herrialde garatuetatik hasita.

### **8.5 HELMUGA Enplegu osoa eta lan duina lortzea**

Hemendik 2030era, enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne, eta balio bereko lanarengatik soldata berdina eman dadila lortzea.

### **8.6 HELMUGA Lanik eta ikasketarik gabeko gazteen proportzioa murriztea**

Hemendik 2020ra, nabarmen murriztea lanik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.

### **8.7 HELMUGA Haurren esklabotza, salerosketa eta lana desagerraraztea**

Berehalako neurri eraginkorrak hartzea bortxazko lana desagerrarazteko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lan egiteko modu okerrenak (haur soldaduak errekrutatzea eta erabiltzea barne) debekatuko eta desagerraraziko direla ziurtatzea, eta, hemendik 2025era, haurren lana amaitzea, bere modu guztietan.

### **8.8 HELMUGA Lan-eskubideak eta lan segurua babestea**

Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileak barne, bereziki emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.

### **8.9 HELMUGA Turismo jasangarria sustatzea**

Hemendik 2030era, turismo jasangarria bultzatzeko politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sortzeko eta tokiko kultura eta produktuak sustatzeko.

### **8.10 HELMUGA Finantza-erakundeen ahalmena indartzea**

Finantza-erakunde nazionalak guztiontzako banku-, finantza- eta aseguru-zerbitzuetarako sarbidea sustatzeko eta zabaltzeko duten ahalmena indartzea.

### **8.A HELMUGA Merkataritzako laguntza handitzea garapen-bidean dauden herrialdeetan**

Merkataritzari laguntzeko ekimenetarako babesareagotzea garapen-bidean dauden herrialdeetan, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeetan, baita Aurrerapen Txikieneko Herrialdeetan Merkataritzaren arloko Laguntza Teknikorako Esparru Integratu Hobetuaren bidez ere.

### **8.B HELMUGA Gazteen enplegurako munduko estrategia garatzea**

Hemendik 2020ra, gazteek enplegua lortzeko munduko estrategia garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



## **9. GJH. INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA**

**Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea**

### **9.1 HELMUGA Azpiegitura jasangarriak egitea**

Azpiegitura fidagarriak, jasangarriak, erresilienteak eta kalitatekoak egitea, eskualdeko eta mugaz gaindiko azpiegiturak barne, garapen ekonomikoari eta giza ongizateari laguntzeko, arreta berezia eskainiz pertsona guztiek horiek modu arrazoizko eta bidezkoan erabiltzeko aukera izateari.

### **9.2 HELMUGA Industria inklusiboa eta jasangarria sustatzea**

Industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta, hemendik 2030era, nabarmen areagotzea industriak enpleguari eta barne-produktu gordinari egiten dion ekarpena, egoera nazionalarekin bat etorritik, eta ekarpen hori bikoiztea aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

### **9.3 HELMUGA Enpresa txiki eta ertainek finantza-zerbitzuetan eta balio-kateetan duten sarbidea handitzea**

Industria txikiak eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak, arrazoizko kredituak barne, lortzeko dituzten aukerak areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan, eta industria eta enpresa horiek balio-kateetan eta merkatuetan sar daitezela ahalbidetzea.

### **9.4 HELMUGA Azpiegitura modernizatzea, teknologia garbia**

Hemendik 2030era, azpiegitura modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezela. Horretarako, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen arabera neurriak har ditzatela lortu behar da.

### **9.5 HELMUGA Ikerketa zientifikoa eta gaitasun teknologikoa handitzea**

Ikerketa zientifikoa handitzea eta herrialde guztietako industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, berrikuntza sustatu behar da eta nabarmen areagotu behar da, hemendik 2030era, ikerketan eta garapenean lan egiten duten pertsonen kopurua (milioi biztanleko), baita sektore publikoek eta pribatuek ikerketan eta garapenean egiten duten gastua ere.

### **9.A HELMUGA Azpiegitura jasangarriak eta erresilienteak egiteko laguntza**

Garapen-bidean dauden herrialdeetan azpiegitura jasangarriak eta erresilienteak egin daitezela ahalbidetzea, babes finantzario, teknologiko eta tekniko handiagoa emanez Afrikako herrialdeei, aurrerapen txikieneko herrialdeei, garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeei eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak.

### **9.B HELMUGA Teknologiaren garapena, ikerketa eta berrikuntza**

Teknologia, ikerketa eta berrikuntza nazionalen garapenari babesa ematea garapen-bidean dauden herrialdeetan, baita industria-dibertsifikazioa eta oinarriko produktuei balioa ematea ahalbidetuko duen araudi-esparru bat bermatuz ere, besteak beste.

### **9.C HELMUGA IKTetarako eta Interneterako sarbidea handitzea**

Nabarmen handitzea informazioaren eta komunikazioen teknologiarako sarbidea, eta, hemendik 2020ra, aurrerapen txikieneko herrialdeei Interneterako sarbide unibertsala eta arazoizkoa emateko ahalegina egitea.



## **10. GJH. DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA**

### **Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea**

#### **10.1 HELMUGA Biztanle pobreenen % 40ren diru-sarrerak handitzea**

Hemendik 2030era, pixkanaka lortzea biztanle pobreenen % 40ren diru-sarrerak batezbesteko tasa nazionala gaindi dezatela eta kopuru horietan jarrai dezatela.

#### **10.2 HELMUGA Inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa sustatzea**

Hemendik 2030era, pertsona guztien inklusio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzea eta sustatzea, edozein dela ere haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera.

#### **10.3 HELMUGA Aukera-berdintasuna bermatzea**

Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desparekotasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.

#### **10.4 HELMUGA Zergekin, soldatekin eta gizarte-babesarekin loturiko politikak ezartzea**

Politikak ezartzea, bereziki zergekin, soldatekin eta gizarte-babesarekin loturikoak, eta arian-arian gero eta berdintasun handiagoa lortzea.

#### **10.5 HELMUGA Munduko finantza-merkatuen erregulazioa hobetzea**

Erakundeen eta munduko finantza-merkatuen araudia eta zaintza hobetzea, eta araudi horien aplikazioa indartzea.

#### **10.6 HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeek nazioarteko IFI eta OOI erakundeetan parte hartzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkaritza eta esku-hartze handiagoa bermatzea nazioarteko ekonomia- eta finantza-erakundeek hartutako erabakietan, erakunde horien eraginkortasuna, fidagarritasuna, kontu ematea eta legitimotasuna handitzeko.

#### **10.7 HELMUGA Migrazioa eta migrazio-politika ordenatuak ahalbidetzea**

Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, arautua eta arduratsua ahalbidetzea, baita migrazio-politika planifikatuak eta ondo kudeatuak aplikatuta ere.

#### **10.A HELMUGA Tratu berezi eta bereziaren printzipioa aplikatzea (Munduko Merkataritza Erakundea)**

Tratu berezi eta bereziaren printzipioa aplikatzea garapen-bidean dauden herrialdeentzat, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeentzat, Munduko Merkataritza Erakundearen hitzarmenarekin bat etorritz.

## **10.B HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeetarako finantza-korronteak sustatzea**

Finantza-garapen eta finantza-korronteetarako laguntza ofiziala sustatzea, atzerriko zuzeneko inbertsioa barne, behar handienak dituzten estatuentzat, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeentzat, Afrikako herrialdeentzat, garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak eta garapen-bidean dauden kostalderik gabeko herrialdeentzat, beren plan eta programa nazionalekin bat etorritik.

## **10.C HELMUGA Diru-bidalketen kostuak murriztea**

Hemendik 2030era, % 3ra baino gutxiagora murriztea migratzaileen bidalketen transakzio-kostuak eta % 5etik gorako kostua duten bidalketen artekariak kentzea.





## **11. GJH. HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK**

**Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea**

### **11.1 HELMUGA Etxebizitza eskuratzea ziurtatzea**

Hemendik 2030era, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea.

### **Meta 11.2 Garraioa publikoa izateko aukera ematea**

Hemendik 2030era, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea eta bide-segurtasuna handitzea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak) beharrei arreta berezia eskainiz.

### **Meta 11.3 Hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea**

Hemendik 2030era, hirigintza inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen plangintza eta kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, herrialde guztietan.

### **11.4 HELMUGA Kultura- eta natura-ondarea babestea**

Munduko kultura- eta natura-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak bikoiztea.

### **11.5 HELMUGA Hondamendiek eragindako heriotza-kopurua murriztea eta kalteberatasuna txikitzea**

Hemendik 2030era, nabarmen murriztea hondamendien ondorioz (urarekin zerikusia dutenak barne) sortutako heriotzen eta hondamendi horien eraginak jasaten dituzten pertsonen kopurua, eta nabarmen murriztea hondamendiek sortutako zuzeneko galera ekonomikoak munduko barne-produktuarekin alderatuta, arreta berezia emanez pobreei eta ahultasun-egoeran dauden pertsonei.

### **11.6 HELMUGA Hirietan ingurumen-inpaktua murriztea**

Hemendik 2030era, murriztea hirietako per capita ingurumen-inpaktu negatiboa, eta arreta berezia eskaintzea airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta beste hondakin batzuen kudeaketari.

### **11.7 HELMUGA Berdegune eta espazio publiko seguruak izateko aukera ematea**

Hemendik 2030era, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

### **11.A HELMUGA Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko loturak bultzatzea**

Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen artean ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretan lotura positiboak bultzatzea, nazioko eta eskualdeko garapenaren plangintza indartuz.

### **11.B HELMUGA Hirietan hondamendien arriskuak murriztea**

Hemendik 2020ra, nabarmen areagotzea politika eta plan integratuak hartzen eta ezartzen dituzten hirien eta giza kokaguneen kopurua, inklusioa, baliabideen erabilera eraginkorra, klima-aldaketa arintzea, klima-aldaketarako egokitzapena eta hondamendien aurkako erresilientzia hobetzeko asmoz; eta Hondamendien Arriskua Murrizteko 2015-2030 aldirako Sendaiko Esparruarekin bat etorriz, hondamendi-arriskuen kudeaketa integrala egitea eta martxan jartzea, maila guztietan.

### **11.C HELMUGA Eraikin jasangarriak eta erresilienteak eraikitzen laguntzea aurrerapen txikieneko herrialdeetan**

Aurrerapen txikieneko herrialdeei babes ematea, baita laguntza finantzarioaren eta teknikoaren bidez ere, eraikin jasangarriak eta erresilienteak eraiki ahal izan ditzaten, tokiko materiala erabiliz.



## **12. GJH. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK**

### **Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea**

#### **12.1 HELMUGA Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko esparrua aplikatzea**

Kontsumo eta Ekoizpen Modalitate Jasangarriari buruzko Programen Hamar Urterako Esparrua aplikatzea, herrialde guztien parte-hartzearekin eta herrialde garatuek gidatuta, kontuan izanda garapen-bidean dauden herrialdeen garapen maila eta ahalmenak.

#### **12.2 HELMUGA Baliabide naturalen erabilera eraginkorra lortzea**

Hemendik 2030era, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.

#### **12.3 HELMUGA Alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murriztea**

Hemendik 2030era, munduan txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua erdira murriztea, eta elikagai-galerak murriztea ekoizpen- eta horniketa-kateetan, uztaren ondorengo galerak barne.

#### **12.4 HELMUGA Hondakin eta produktu kimikoen kudeaketa**

Hemendik 2020ra, produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat etorriz; eta nabarmen murriztea atmosferara, uretara eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintzeko.

#### **Meta 12.5 Hondakinen prebentzioa, murrizketa, birziklatzea eta berrerabilera**

Hemendik 2030era, hondakinen sorrera nabarmen murriztea, prebenitzeko, murrizteko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko jardueren bidez.

#### **12.6 HELMUGA Enpresetan jardunbide jasangarriak ezartzea**

Enpresak animatzea, bereziki enpresa handiak eta transnazionalak, jardunbide jasangarriak ezartzera eta jasangarritasunari buruzko informazioa sartzera beren txostenen aurkezpen-zikloan.

#### **12.7 HELMUGA Erosketa publiko jasangarriak**

Erosketa publikoko jardunbide jasangarriak sustatzea, politika eta lehentasun nazionalekin bat etorriz.

#### **12.8 HELMUGA Garapen jasangarrirako hezkuntza sustatzea**

Hemendik 2030era, mundu osoko pertsonak beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko.

#### **12.A HELMUGA Jasangarritasunerako zientzia eta teknologia indartzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea beren gaitasun zientifikoa eta teknologikoa indartzen, kontsumo eta ekoizpen jasangarriagoko modalitateetarantz aurrera egiteko.

## **12.B HELMUGA Turismo jasangarria lortzea**

Garapen jasangarrirako eraginak zaintzeko tresnak sortzea eta aplikatzea, turismo jasangarria lortu ahal izateko, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan.

## **12.C HELMUGA Erregai fosilentzako dirulaguntzak erregulatzea**

Kontsumo antiekonomikoa sustatzen duten erregai fosilentzako dirulaguntza ez eraginkorrak arrazionalizatzea, merkatuaren desorekak desagerraraziz, egoera nazionalen arabera. Horretarako, zerga-sistemak berregituratu beharko dira eta dirulaguntza kaltegarriak pixkanaka kendu egin beharko dira, halakorik balego, ingurumenean duten eragina islatzeko, erabat kontuan izanda garapen-bidean dauden herrialdeen behar eta baldintza zehatzak, eta haien garapenean sor ditzaketan eragin kaltegarriak murriztuz, pobreak eta komunitate kaltetuak babestu ahal izateko.



## **13. GJH. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA**

### **Urgentziazko neurriak hartzea klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko**

#### **13.1 HELMUGA Erresilientzia eta egokitzapena indartzea**

Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuenganako erresilientzia eta haietara egokitzeko ahalmena indartzea herrialde guztietan.

#### **13.2 HELMUGA Klima-aldaketa aintzat hartzea politika, estrategia eta plan nazionaletan**

Klima-aldaketarekin lotutako neurriak sartzeko politika, estrategia eta plan nazionaletan.

#### **13.3 HELMUGA Ingurumenarekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazioa handitzea**

Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza ahalmena eta erakundeena hobetzea, klima-aldaketa murrizteko, hartara egokitzeko, dituen eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.

#### **13.A HELMUGA Baliabide ekonomikoak mobilizatzea**

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan parte hartzen duten herrialde garatuak hartutako konpromisoa betetzea, hau da, 2020rako lortzea iturri guztietatik jasotako 100.000 milioi dolar erabiltzea urtean, denen artean, garapen-bidean dauden herrialdeen beharrei erantzun ahal izateko, klima-aldaketa arintzeko neurri zehatzak hartzeko eta neurri horiek gardentasunez aplikatzeko; eta Klimarako Funts Berdea martxan jartzea, ahalik eta azkarren kapitalizatuta.

#### **13.B HELMUGA Aurrerapen txikieneko herrialdeetan klima-aldaketa kudeatzea**

Plangintza eta kudeaketa eraginkorrerako ahalmena areagotzeko mekanismoak sustatzea, klima-aldaketarekin lotuta, aurrerapen txikieneko herrialdeetan eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikietan, arreta berezia eskainiz emakumeei, gazteei, tokiko komunitateei eta komunitate marjinatei.



## **14. GJH. ITSASPEKO BIZITZA**

### **Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu iraunkorrean erabiltzea garapen jasangarriari begira**

#### **14.1 HELMUGA Itsas kutsadura prebenitzea eta murriztea**

Hemendik 2025era, mota guztietako itsas kutsadura prebenitzea eta nabarmen murriztea, bereziki lehorrean egindako jarduerak sortutakoa, itsas detrituak eta mantenuaiek eragindako kutsadura barne.

#### **14.2 HELMUGA Itsasoko eta kostaldeko ekosistemen kudeaketa**

Hemendik 2020ra, itsasoko eta kostaldeko ekosistemak modu jasangarrian kudeatzea eta babestea, eragin kaltegarri garrantzitsuak saihesteko. Horretarako, haien erresilientzia indartu beharko da eta leheneratzeko neurriak hartu beharko dira, ozeanoen osasuna eta produktibitatea berreskuratzeko.

#### **14.3 HELMUGA Ozeanoen azidotzea murriztea**

Ozeanoak azidotzearen ondorioak murriztea eta haien aurre egitea, baita maila guztietan lankidetzat zientifiko handiagoa martxan jarrita ere.

#### **14.4 HELMUGA Arrantza-ustiapen jasangarriaren erregulazioa**

Hemendik 2020ra, eraginkortasunez arautzea arrantza-ustiapena eta amaiera ematea gehiegizko arrantzari, lege kanpoko arrantzari, aitortu gabeko eta arautu gabeko arrantzari, bai eta arrantza-jardunbide suntsitzaileei ere. Horrez gain, oinarri zientifikoak duten kudeaketa-planak aplikatzea, arrain-populazioak ahalik eta epe laburrean berrezartzeko, dituzten ezaugarri biologikoen arabera ahalik eta errendimendu jasangarriena eman dezaketen mailalara iritsiz.

#### **14.5 HELMUGA Kostaldeak eta itsasoak kontserbatzea**

Hemendik 2020ra, kostaldeen eta itsas-eremuen % 10 gutxienez kontserbatzea, lege nazionalekin eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorritik eta oinarri gisa erabilgarri dagoen informazio zientifiko hoberean erabiliz.

#### **14.6 HELMUGA Legez kanpoko eta gehiegizko arrantzari aurre egitea**

Hemendik 2020ra, arrantzari emateko dirulaguntza mota batzuk debekatzea, ahalmenen gaineko arrantza eta gehiegizko arrantza ahalbidetzen dituztelako; kentzea, halaber, lege kanpoko arrantza, aitortu gabekoa eta arautu gabekoa ahalbidetzen duten dirulaguntzak; eta mota horretako dirulaguntza gehiago ez sortzea. Horren harira, Munduko Merkataritza Erakundearen esparruan egiten diren arrantzarako dirulaguntzei buruzko negoziazioek barne hartu behar dute tratatu berezi eta berezia, egokia eta eraginkorra garapen-bidean dauden herrialdeentzat eta aurrerapen txikieneko herrialdeentzat.

#### **14.7 HELMUGA Arrantza jasangarriaren onura ekonomikoak handitzea**

Hemendik 2030era, areagotzea garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiek eta aurrerapen txikieneko herrialdeek beren itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzean lortzen dituzten irabazi ekonomikoak, bereziki arrantzaren, akuikulturaren eta turismoaren kudeaketa jasangarriaren bidez lortzen dituztenak.

#### **14.A HELMUGA Itsas ikerketarako eta teknologiarako laguntza**

Ezagutza zientifikoak areagotzea, ikerketa-ahalmena garatzea eta itsas teknologia transferitzea, Gobernu Arteko Ozeanografia Batzordearen Itsas Teknologia Transferitzeko Irizpideak eta Gidalerroak kontuan hartuta, ozeanoen osasuna hobetzeko eta itsas biodibertsitateak garapen-bidean dauden herrialdeei egiten dien ekarpena areagotzea, bereziki garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiei eta aurrerapen txikieneko herrialdeei.

#### **14.B HELMUGA Eskala txikiko arrantza eta artisau-arrantza sustatzea**

Artisau-arrantzaleek itsas baliabideak eskuratzeko eta merkatuetan sartzeko dituzten aukerak areagotzea.

#### **14.C HELMUGA Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa aplikatzea**

Ozeanoen eta haien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzea, Itsas Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioan jasotako nazioarteko zuzenbidea aplikatuz, zuzenbide hori baita ozeanoak eta haien baliabideak zaintzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko esparru juridikoa, "Nahi dugun etorkizuna" dokumentuaren 158. paragrafoak gogorarazten duen moduan.

## **15. GJH. LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA**



**Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditu eta inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.**

### **15.1 HELMUGA Ekosistemen kontserbazio eta erabilera jasangarria bermatzea**

Hemendik 2020ra, lehorreko ekosistemen eta ur gezako barne-ekosistemen eta haien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki honako hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gunee lehorrak; hori guztia, bat etorritik nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin.

### **15.2 HELMUGA Basoen kudeaketa jasangarria**

Hemendik 2020ra, baso mota guztien kudeaketa jasangarria bultzatzea, basogabetzea geldiaraztea, degradatutako basoak lehengoratzea eta basotzea nahiz basoberritzea nabarmen areagotzea mundu osoan.

### **15.3 HELMUGA Desertifikazioari aurka egitea**

Hemendik 2030era, desertifikazioari aurka egitea, lur eta lurzoru degradatuak birgaitzea (desertifikazioek, lehorteek eta uholdeek kaltetutako lurak barne), eta lurzoruaren degradazioan eragin neutroa izango duen mundu bat lortzen saiatzea.

### **15.4 HELMUGA Ekosistema menditsuen kontserbazioa bermatzea**

Hemendik 2030era, ekosistema menditsuen kontserbazioa bermatzea, haien dibertsitate biologikoa barne, garapen jasangarrirako funtsezko onurak emateko duten ahalmena hobetzeko.

### **15.5 HELMUGA Degradazioaren eta dibertsitatearen galeraren aurkako neurriak**

Neurri premiazko eta nabarmenak hartzea habitat naturalen degradazioa murrizteko, biodibertsitate biologikoaren galera geldiarazteko eta, hemendik 2020ra, arriskuan dauden espezieak babesteko eta haien desagertzea saihesteko.

### **15.6 HELMUGA Baliabide genetikoak eskuratzea eta behar bezala erabiltzea**

Parte-hartze zuzena eta bidezkoa sustatzea baliabide genetikoak erabiltzearen ondoriozko irabazietan, eta baliabide horietarako sarbide egokia sustatzea, nazioartean hitzartutakoaren arabera.

### **15.7 HELMUGA Ezkutuko ehizari eta espezie babestuen trafikoari aurre egitea**

Premiazko neurriak hartzea ezkutuko ehizari eta flora- eta fauna-espezie babestuen trafikoari amaiera emateko, eta flora- eta fauna-produktu basatien lege kanpoko eskari nahiz eskaintzari aurre egiteko.



### **15.8 HELMUGA Espezie inbaditzaileen prebentzioa**

Hemendik 2020ra, espezie exotiko inbaditzaileak sartzea prebenitzeko eta haien lurreko nahiz uretako ekosistemetan dituzten eraginak nabarmen murrizteko neurriak hartzea, eta lehentasunezko espezieak kontrolatzea edo desagerraraztea.

### **15.9 HELMUGA Ingurumenarekiko sentikorrek diren planak integratzea**

Hemendik 2020ra, ekosistemen balioak eta biodibertsitatea sartzea nazioko eta tokiko plangintzan, garapen-prozesuetan, pobrezia murrizteko estrategietan eta kontabilitatean.

### **15.A HELMUGA Finantza-baliabideak mobilizatzea eta handitzea**

Iturri guztietatik datozen finantza-baliabideak mobilizatzea eta nabarmen areagotzea, biodibertsitatea eta ekosistemak zaintzeko eta jasangarritasunez erabiltzeko.

### **15.B HELMUGA Basoak kudeatzeko baliabideak gehitzea**

Iturri guztietako eta maila guztietako baliabide ugari mobilizatzea, baso-kudeaketa jasangarria finantzatzeko eta garapen-bidean dauden herrialdeei pizgarri egokiak emateko, kudeaketa hori susta dezaten, bereziki kontserbazioari eta basoberritzeari dagokienez.

### **15.C HELMUGA Ezkutuko ehizaren aurkako borrokan laguntzea**

Ezkutuko ehizaren eta espezie babestuen trafikoaren aurkako borrokari mundu mailan ematen zaion babesa areagotzea, tokiko komunitateen ahalmena areagotuz, iraupen-aukera jasangarriak lor ditzaten.



## **16. GJH. BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK**

**Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan**

### **16.1 HELMUGA Indarkeria mota guztiak murriztea**

Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak eta haiei lotutako heriotza-tasak mundu guztian.

### **16.2 HELMUGA Haurren kontrako tratu txarrak, salerosketa eta esplotazioa desagerraraztea**

Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari, salerosketari eta indarkeria-eta tortura-mota guztiei.

### **16.3 HELMUGA Zuzenbidezko estatua sustatzea, justizia eskuragarri izatea**

Zuzenbidezko estatua sustatzea nazioan eta nazioartean, eta justizia eskuragarri izateko aukera-berdintasuna bermatzea denontzat.

### **16.4 HELMUGA Finantza-korronteak eta legez kanpoko armenak murriztea**

Hemendik 2030era, nabarmen murriztea finantza-korronteak eta legez kanpoko armenak, lapurtutako aktiboen berreskurapena eta itzulera indartzea, eta delinkuentzia antolatu guztien aurka borroka egitea.

### **16.5 HELMUGA Ustelkeria eta eroskeria murriztea**

Ustelkeria eta eroskeria nabarmen murriztea, bere forma guztietan.

### **16.6 HELMUGA Erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea**

Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.

### **16.7 HELMUGA Herritarren parte-hartzea sustatzea**

Beharrei erantzungo dieten erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan.

### **16.8 HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeek nazioarteko erakundeetan duten parte-hartzea indartzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeen parte-hartzea handitzea eta indartzea munduko gobernantza-erakundeetan.

### **16.9 HELMUGA Nortasun juridikoa eta jaiotzen erregistroa izatea ahalbidetzea**

Hemendik 2030era, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere jaiotzak erregistratzearen bidez.

### **16.10 HELMUGA Informazioa eskuratzea eta oinarrizko askatasunak babestea**

Informaziorako sarbide publikoa bermatzea eta oinarrizko askatasunak babestea, lege nazionalekin eta nazioarteko hitzarmenekin bat etorriz.

### **16.A HELMUGA Indarkeriaren prebentzioan erakundeak indartzea**

Behar diren erakunde nazionalak indartzea, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, indarkeria prebenitzeko eta terrorismoari eta delinkuentziari aurka egiteko ahalmena sortzeko maila guztietan, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan.

### **16.B HELMUGA Legeak eta politikak sustatzea eta aplikatzea**

Diskriminaziozkoak ez diren legeak eta politikak sustatzea eta aplikatzea garapen jasangarriaren alde.



## **17. GJH. HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA**

### **Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna ezartzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea**

#### **17.1 HELMUGA Zerga-bilketarako barneko baliabideak mobilizatzea**

Barneko baliabideen mobilizazioa indartzea, baita garapen-bidean dauden herrialdeei nazioarteko laguntza emanez ere, diru-sarrera fiskalak eta beste era batekoak biltzeko ahalmen nazionala hobetzeko.

#### **17.2 HELMUGA Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) % 0,7 betetzea**

Herrialde garatuek garapenerako laguntza ofizialarekin loturik hartutako konpromisoak erabat beteko dituztela zaintzea, herrialde garatu askok hartutako honako konpromiso hau barne: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,7 garapen-bidean dauden herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea, eta diru-sarrera nazional gordinaren % 0,15 eta % 0,20 artean aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera bideratzea. Garapenerako laguntza ofizialaren emaileak bultzatu nahi dira honako hau betetzeko helburua ezar dezaten: diru-sarrera nazional gordinaren % 0,20 gutxienez bideratzea aurrerapen txikieneko herrialdeen garapenerako laguntza ofizialera.

#### **17.3 HELMUGA Finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea**

Hainbat iturritako finantza-baliabide gehigarriak mobilizatzea garapen-bidean dauden herrialdeentzat

#### **17.4 HELMUGA Zorra berregituratzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeei laguntzea epe luzerako zorra jasangarria izan dadin lortzeko, finantzazioa sustatzera bideratutako politika koordinatuen bidez, zorra arinduz eta berregituratuz (dagokion moduan) eta oso zorpetuta dauden herrialde pobreen kanpo-zorrari aurre egitea, gehiegizko zorpetzea murrizteko.

#### **17.5 HELMUGA Aurrerapen txikieneko herrialdeetan inbertsioak sustatzea**

Aurrerapen txikieneko herrialdeen alde inbertsioak sustatzeko sistemak ezartzea eta aplikatzea.

#### **17.6 HELMUGA Teknologiaren eskualdatzea hobetzea**

Eskualdeko eta nazioarteko Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzak hobetzea, baita lankidetzak trianguluarra ere, honako arlo hauetan: zientzia, teknologia, berrikuntza eta horietarako sarbidea. Ezagutzen trukea areagotzea aldean artean hitzartutako baldintzetan, egungo mekanismoen arteko koordinazioa hobetuz, bereziki Nazio Batuei dagokienez, eta teknologiaren erabilera erraztuko duen mundu mailako mekanismo baten bidez.

### **17.7 HELMUGA Ekologikoki arrazoizkoak diren teknologiak sustatzea**

Ekologikoki arrazoizkoak diren teknologien garapena sustatzea, eta horiek garapen-bidean dauden herrialdeetara transferitzea, dibulgatzea eta hedatzea baldintza onetan, baita emakida- eta lehen tasun-baldintzetan ere, aldean artean hitzartutakoaren arabera.

### **17.8 HELMUGA Teknologia-bankua sortzea**

Martxan jartzea, beranduenez 2017an, teknologia-bankua eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan gaitasuna sortzen laguntzeko mekanismoa aurrerapen txikieneko herrialdeentzat; eta teknologia instrumentalen erabilera handitzea, bereziki informazioaren eta komunikazioen teknologiarena.

### **17.9 HELMUGA GJHak ezartzeko ahalmenak indartzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeetan ahalmena sortzeko jarduera eraginkorrak eta espezifikoak gauzatzeko nazioarteko laguntza handitzea, Garapen Jasangarrirako Helburu guztiak ezartzeko plan nazionalak babesteko, Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Hegoalde lankidetzaren bitartez, eta baita lankidetzaren bitartez ere.

### **17.10 HELMUGA Alde anitzeko merkataritza unibertsala sustatzea**

Alde anitzeko merkataritza-sistema unibertsala sustatzea, arauetan oinarritua, irekia, diskriminaziorik gabea eta bidezkoa, Munduko Merkataritza Erakundearen esparruan, besteak beste, baita Garapenerako Dohako Programaren esparruan negoziazioak amaituz ere.

### **17.11 HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioak areagotzea**

Garapen-bidean dauden herrialdeen esportazioak nabarmen areagotzea, bereziki aurrerapen txikieneko herrialdeek munduko esportazioetan duten parte-hartzea bikoizteko hemendik 2020ra.

### **17.12 HELMUGA Garapen-bidean dauden herrialdeek merkatuan sarbidea izatea**

Aurrerapen txikieneko herrialde guztiek merkatuetan sarbide egokia izatea lortzea, eskubide eta kontingenterik gabe eta modu iraunkorrean, Munduko Merkataritza Erakundearen erabakiekin bat etorriz. Horretarako, aurrerapen txikieneko herrialdeen inportazioei aplikatu dakizkiekeen lehen tasuneko eta jatorrizko arauak gardenak eta errazak izan daitezela zainduko da, merkatuetarako sarbidea errazten lagun dezaten.

### **17.13 HELMUGA Munduko egonkortasun makroekonomikoa handitzea**

Munduko egonkortasun makroekonomikoa handitzea, baita politiken arteko koordinazioaren eta koherentziaren bidez ere.

### **17.14 HELMUGA Politiken koherentzia hobetzea**

Garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzea.

### **17.15 HELMUGA Nazioaren subiranotasuna errespetatzea**

Herrialde bakoitzaren arau-marjina eta lidergoa errespetatzea, pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasangarrirako politikak ezartzeko eta aplikatzeko.

### **17.16 HELMUGA Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea**

Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna hobetzea, eta horren osagarri izango diren hainbat interesdunen arteko aliantzak ezartzea, ezagutzak, espezializazioa, teknologia eta finantza-baliabideak mobilizatzeko eta trukatzeko, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen laguntzeko herrialde guztietan, eta bereziki garapen-bidean daudenetan.

### **17.17 HELMUGA Aliantza publiko-pribatuak sustatzea**

Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen bidez baliabideak lortzeko esperientzia eta estrategiak baliatuz.

### **17.18 HELMUGA Estatistika-gaitasuna sortzea**

Hemendik 2020ra, garapen-bidean dauden herrialdeei (aurrerapen txikieneko herrialdeak eta garapen-bidean dauden uharte-estatu txikiak barne) ahalmena sortzeko emandako laguntza hobetzea, datu egokien, fidagarrien eta kalitatezkoen erabilgarritasuna nabarmen areagotzeko, datu horiek banakatuta diru-sarreraren, sexuaren, adinaren, arrazaren, jatorri etnikoaren, migrazio-estatusaren, desgaitasunaren, kokapen geografikoaren eta testuinguru nazionaletan egokitzen jotzen diren beste ezaugarri batzuen arabera.

### **17.19 HELMUGA Barne Produktu Gordinaz haratago doazen adierazleak sustatzea**

Hemendik 2030era, martxan dauden ekimenak aprobetxatzea garapen jasangarriaren arloan egindako aurrerapenak neurtzea ahalbidetuko duten zenbait adierazle sortzeko; adierazle horiek, halaber, barne-produktu gordinaren osagarri izango dira, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan estatistika-ahalmena sortzen lagunduko dute.